



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-03-25eko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko martxoaren hogeita bostean, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna eta Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.

2009ko otsailaren hogeita bosteko ohizko saioaren akten zirriborroa hurrengo saiorako uztea erabakitzen da.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-02-16ko 5/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 9.053,66.- €.
- 2009-02-16ko 6/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 2.896,44.- €.
- 2009-02-16ko 7/2009 Dekretua: 72.458.830-K N.A. duenari dirulaguntza ematea seme-alabak haur eskolara eramateagatik.
- 2009-03-10eko 8/2009 Dekretua: 72.437.195-Yri eskatutako segregazio baimena ez ematea.
- 2009-03-10eko 9/2009 Dekretua: 72.414.354-G N.A.ri trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuespena onartzea.
- 2009-03-10eko 10/2009 Dekretua: Eguzki Eraikuntzari esleitzea herriguneko hariteria lurperatzeko lanak.
- 2009-03-17ko 11/2009 Dekretua: Felix Fraile Alonsok eskatutako eraikitze eta jarduera baimenak ez ematea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA UDAL HONETAKO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA EGITEA.

2008ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Udal Osoko Bilkurak, besteen artean, 2008 urteko Lanpostuen Zerrenda onartu zituen. Ondorioz, 2008ko irailaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 182 zenbakidunean, hain zuzen, Beizamako Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda argitaratu ziren.

Ikusirik, administrari laguntzaile eta eginkizun anitzeko langile lanpostuei dagokien deskribapenean akatsak nabaritu direla.

Kontuan hartuz, besteen artean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoa, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Bakarra.- Akatsen zuzenketa eta aldaketa egitea. Ondorioz, iragarkian ondokoa dioen lekuan:



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Izena	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Eskatutako Titulazioa	Hizkuntza Eskakizuna	Derrigorrez. Data	Ordainketa Maila	Lansiaoa
Administrari laguntzailea	L-O	C	O	AL	-	4	3	-	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	L-O	E	B	Z	-	4	2	-	7	% 50

Denominación	Provisión	Grupo	Escala	Subescala	Clase	Titulación	Perfil Lingüístico	Fecha Preceptividad	Nivel Retributivo	Jornada
Auxiliar administrativo	C-O	C	A	AL	-	4	3	-	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	C-O	E	B	S	-	4	2	-	7	% 50

Honakoa jarri beharko du:

Debe decir:

Izena	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Eskatutako Titulazioa	Hizkuntza Eskakizuna	Derrigorrez. Data	Ordainketa Maila	Lansiaoa
Administrari laguntzailea	L-O	C	O	AL	-	4	3	2008/04/30	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	L-O	E	B	Z	-	4, B1	1	2008/04/30	7	% 50

Denominación	Provisión	Grupo	Escala	Subescala	Clase	Titulación	Perfil Lingüístico	Fecha Preceptividad	Nivel Retributivo	Jornada
Auxiliar administrativo	C-O	C	A	AL	-	4	3	2008/04/30	12	% 100
Eginkizun anitzeko langilea	C-O	E	B	S	-	4, B1	1	2008/04/30	7	% 50

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARRENGO GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, EUSKARA IKASTEN DUTENEI DIRULAGUNTZA EMATEA.

Beizamako herritarren euskara menperatzeko gaitasuna sakontzeko asmoz eta ez dakitenek –torkinak batez ere- euskara ezagutu eta erabili dezaten, Udal honek euskara ikasteagatik dirulaguntzak ematea interesgarria dela deritzo.

Honenbestez, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- Beizamako herritarrei euskara ikasteko dirulaguntzak ematea, ondoko baldintzak jarraituz:

- Beizamako udalerrian bizitzea eta laguntza eskaera luzatu aurreko data baino sei hilabete lehenago gutxienez bertan erroldaturik egotea.
- Udal zerga eta tasen ordainketetan egunean egotea.
- Ikastarora asistentzia %80a izatea gutxienez.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- EGA titulua edo parekoa lortzeko ikastaroa egiteko edota euskararen ikaskuntzarako edozein ikastaro egiteko (alfabetatze, euskalduntze,...) matrikula eta kuota gastuetarako laguntza ekonomikoa.
- Diruz lagunduko den zenbatekoa: kostuaren %70a; ikastaroari dagokion titulua lortuz gero %100a itzuliko da.
- Dirulaguntza, ikastaroaren amaieran ordainduko da, beharrezkoak diren egiaztagiri guztiak aurkeztu ondoren.

Bigarrena.- Beizamako herritar guztiei jakinaraztea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENKO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, R-21 GUNEAREN URBANIZAZIOARI DAGOKION
ZERTIFIKAZIOEN ORDAINKETA EGITEA.**

2006ko uztailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Udal honek behin betiko onarpena ematea erabaki zuen Beizamako R-21 ingurunea urbanizatzeko proiektuari, BiRG-k idatzitako egitasmoaren arabera.

2007ko azaroaren 28an egindako bilkuran, berriz, aipatutako ingurunea urbanizatzeko lanen exekuzioaren esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea erabaki zen, 2008ko urtarrilaren 17an ospatutako bilkuran Eguzki Eraikuntzak SLri esleitu zitzaizlarik.

Eguzki Eraikuntza SL enpresak, batetik, 2009ko otsailaren 12ko data eta 160 sarrera zenbakiarekin, eta bestetik, 2009ko martxoaren 18ko data eta 270 sarrera zenbakiarekin esleitutako lanei dagokion bigarren, hirugarren eta laugarren zertifikazioak aurkeztu ditu:

Seigarren zertifikazioa: 38.123,20.- € (BEZ barne)

Zazpigarren zertifikazioa: 27.534,51.- € (BEZ barne)

Ikusirik aurkeztutako zertifikazioak Udal hau aholkatzen duen arkitektuaren oniritzia jaso duela.

Kontuan hartuz, apirilaren 2ko 7/1985 Legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21 eta 22 artikuluetan ezarritakoa, besteak beste.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Lehena. Eguzki Eraikuntza SLk aurkeztutako zertifikazioa onartzea eta dagokionean ordainketa egitea agintzea.

Bigarrena.- Azkeneko zertifikaziotik, Udalaren kontura egindako argindarraren kostua deskontatzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

**SEIGARRENGO GAIA
GALDERA ETA ESKAERAK.**

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**UDALAK UROLA ERDIALDEKO ZERBITZU MANKOMUNITATEAN DITUEN
ORDEZKARIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA**

Udal honek, 2007ko ekainaren 25eko ezohiko Osoko Bilkuran erabaki zuen, besteen artean, Udalak parte hartzen duen hainbat organo kolegiatu eta mankomunitateetan ordezkariak izango direnak izendatu ziren, hauen artean, Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitatean izango direnak: Ramon Bengoetxea Gerrikagoitia titularra eta Luis Javier Oregi Iñurrieta ordezkoa.

Hainbat arrazoi direla medio, egokia ikusten da hauen ordezkook ere izendatzea aurretik aipatutakoen ezintasun kasuan Udalaren ordezkari gisa parte har dezaten.

Udalbatzak, gaia aztertu ondoren eta bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Igone Arruti Olazabal eta Itziar Arkonada Lizarraga Beizamako Udalak Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitatean dituen ordezkarien ordezeko izendatzea.

Bigarrena.- Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitateari honako erabaki hau jakinaraztea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.